

IL CASO MORO

Negoziatio antzua

ALBERTO BARANDIARAN

70eko hamarkadako politika, Europan, bi gertakari historikoen gurutzetak markatu zuen: alde batetik, 68ko maiatzeko mugimendu subertsiboaren oihartzunak, gazte belaunaldi oso bat inarrosi eta borroka politikora brauki bultzatu zuena eta, bestetik, komunismo politiko zurrunaren edo, nahi bada, estalinismoaren gainbeherak, zeinari esker ezkerria bera lotura ideologiko eta hierarkiko estuetatik askatu baitzen. Biak josita daude mihi-se ideologiko berean, ezinbestez: 68ko maiatzeko protestetan parte hartu zuten gazteek bazuten, oraindik, ezker klasikoaren lilura, hura bizi izan zutenen seme-alabak ziren-eta; Stalinen heriotzaren ondoren Sobiet Batasunean gertatutako laxatze ideologikoak, bestalde, gazte horiek umezurtz utzi eta beste borroka modu batzuk bilatzera bultzatu zituen. Elkar elikatu zuten prozesuak izan ziren.

Gurutzaketa horrek sortutako uhinek lurrikara politikoak eragin zituzten Europa osoan, eta Italian, bereziki. Horretaz doa film hau.

Historia pixka bat: hain zuzen ere

bi mugimendu tektoniko horiek gertatu zirenean, Enrico Berlinguerren Alderdi Komunista bere onenean zegoen, 'hirugarren bidea' deitu izan zen eurokomunismoaren oinarriak paratu nahian. Baina, ezkerren historian ziklikoki martxan jartzen den gurpilaren indarraren indarrez, horrek erreakzioa piztu zuen gizartea norabidetu ez baizik estatua eraitsi eta beste errealitate berri bat eraikitzearekin amets egiten zutenengan.

Erreakzio horren kumea da *Brigate Rosse* ezker muturreko taldea: langileak mobilizatu nahi zituen mugimendu ezkertiar elitista, Italiako politika bortizki astindu zuena. Faxismoaren oinordekoek eta mafia ezberdinek boterearen baliabide guztiak menderatuta zituztela sinetsita zeuden brigadistak, eta Berlinguerrek ezarri nahi zuen erreformismoarekin desengainua hartuta, 1978an efektu kolpe handia lortu nahi izan zuten, egitura usteldua goitik behera eroraraziko zuen bultzada. Aldo Moro politikaria, alde horretatik, harrapakin egokia zen: Italiako politika osotoko estekatutako Democrazia Cristiana alderdiko kide karismatikoena

zen, intelektuala eta izaera irekikoa. Haren bahiketaren bidez, Brigateko kideek estatuarekin negoziatio bide bat ireki nahi zuten.

Filmak hain zuzen ere negoziatio bide horretan zentratzen du errelatoa. Nolako konfiantza duten bahitzaileek, lider politikoa kaiolan edukiz gero, nahi duten dena lortuko dutela –“estatua belaniko jartzea”, eta nola konturatzen diren, gero, estatuak sakrifikatu dezakeen peoi bat besterik ez dela Moro. Etsipen baten istorioa da lana: lehendabizi, politikariarena berarena, laster asko ohartzen baita inork ez duela arrisku handirik hartuko bere alde; ondoren, haren familiarena, konturatzen denean sinestezina dena gertatuko dela, alegia alderdiak bere liderra abandonatuko duela; azkenik, bahitzaileena, ulertzen dutenean estatuak ez duela amore emango eta botatako hordagoa bete beste erremediorik ez dutela.

“Nahikoa ziratekeen ehun sinadura Demokrazia Kristaia negoziatzera behartzeko”, diotso Morok, etsita, bere bahitzaileen buruzagari. “Egon ziren ehun sinadura horiek, jauna, baina zure kontra”, erantzun dio Brigateko kideak.



UNA PELÍCULA DE IAIR SAID

“UNA MARAVILLA CAÓTICA, AGRIDULCE, EMOCIONAL Y PURAMENTE DETALLISTA”
SPANGLISH CINEMA

“SU SINGULAR PERSPECTIVA HACE DE SAID UNA NUEVA Y VALIOSA VOZ EN EL CINE”
SCREENANARCHY

SSIFF PREMIO DE LA INDUSTRIA WIP LATAM

SSIFF HORIZONTES LATINOS

acid CANNES

CON LA PARTICIPACIÓN DE
RITA CORTESE IAIR SAID JULIANA GATTAS ANTONIA ZEGERS

LOS DOMINGOS MUEREN MÁS PERSONAS

4 DE OCTUBRE SOLO EN CINES